

Londres, 1872ko urriak 2.
ALE STOUT
SPIRITS
WINES
Hemen da... Eta ordu-orduan!
Antza denez, jaunak ezin ditu atzerapenak eraman...
TIRRIN TIRRIN


Hemen da zerbitzari berria, Fogg jauna.
Frantsesa zara eta John duzu izena?
Jean, jauna, errespetu osoz.
Jean Passepartout esaten didate, beti asmatzen dudalako nola gainditu arazoak. Gazte zintzoa naizela esango nuke, jauna. Kantari ibiltaria izan naiz, baita zaldizkoa eta akrobata ere zirku batean, geroago gimnasia irakaslea, eta, azkenik, suhiltzaileen sarjentua.
Duela bost urte utzi nuen Frantzia, eta geroztik zerbitzari dihardut Ingalaterran.
Zure gomendioa egin didate, eta erreferentzia onak jaso ditut. Ezagutzen al dituzu nire baldintzak?
Bai, jauna.
Beraz, une honetatik aurrera -1872ko urriak 2, asteazkena, goizeko hamaikak eta hogeita bederatzi-, nire zerbitzupean zaude.
Gauerdian itzuliko naiz.
Erloju bat baino zehatzagoa da gizona! Harekin ez dut ustekaberik izango. Horixe behar dut...


Londres, Reform-Club, egun bereko 11:55, egunero bezala.
Egun on, Mr Fogg.
12:00
Zure roastbeefa, Mr Fogg.
12:47
The *Times*, Mr Fogg.
15:45
The *Standard*, Mr Fogg.
17:30
Zure chester gazta, Mr Fogg.
18:10
Aizu, Ralph, zertan da lapurreta kontu hori?
Bankuak dirua galduko du, hori seguru!
Oraindik posible da lapurra harrapatzea. Polizia-inspektoreak bidali dituzte Amerika eta Europako portu nagusietara. Zaila izango du jaun horrek ihes egitea.


Beraz, badakite nor den lapurra?
Ez da lapurra.
Nolatan ez da lapurra izango Ingalaterrako bankuari 55.000 libera billetetan lapurtu dion morroi bat?
Prentsaren esanetan, *gentleman* bat da...
Hara, Fogg jauna, hor zaude!
"... Itxura dotoreko gizon bat, gisakoa, antzeman zuten hara-hona ordaingelan, lapurretaren eszenatokian".
SOLASALDIAK *WHIST* PARTIDA BATEN BUELTAN JARRAITZEN DU.
Nora joango da, baina, lapur hori?
Ez dakit, baina mundua handia da izan!
Halakoa zen lehen...
Zure txanda, jauna, ebaki.
Nola lehen? Ez zen, bada, Lurra txikituko, ezta?
Bai horixe. Fogg jaunaren iritzikoa naiz. Txikitu egin da, duela ehun urte baino hamar aldiz bizkorrago korritu baitaiteke.
Horra berba egiteko modu xelebrea. Eta hori, gaur egun hiru hilabetean egiten delako itzulia...
Laurogei egun nahikoa dira..
Bai, baina kontuan hartu gabe eguraldi txarra, kontrako haizeak, naufragioak, baita trenbideak lapurtu eta bidaiariak larrutzen dituzten indioak ere!
Dena kontuan hartuta... Bi triunfo nagusi.



Teorian, arrazoi duzu, Fogg jauna, baina praktikan...
Baita praktikan ere, Stuart jauna.
4.000 libera jokatuko nituzke halako bidaia bat ezinezkoa dela.
Alderantziz: guztiz posiblea da.
Orduan, egin ezazu!
Munduaren itzulia laurogei egunean?
Bai.
Hala egingo dut.
Noiz?
Berehala.
Oso ondo, Fogg jauna! Bai, 4.000 libera apustu!
20.000 libera ditut gordailuan Baring anaienean.
Txantxetan ari al zara?
Ingeles on batek ez du sekula txantxarik egiten halako gauza garrantzitsuekin. 20.000 libera apustu, edonori, baietz munduaren itzulia laurogei egunean egin.
Onartzen duzue?
ONARTZEN DUGU!
Ondo da. Gaur bertan, arratsaldeko zortziak eta berrogeita bostean hartuko dut Douvreserako trena. Beraz, bueltan egon beharko nuke Londresen, Reform-Clubeko gela honetantxe, abenduaren 21ean, larunbata, arratsaldeko zortziak eta berrogeita bostean.


Ordu erdi geroago...
Passepartout!
Passepartout!
Bueltan da jada jauna? Oraindik ez da gauerdia.
Hamar minutu barru Douvresera abiatuko gara.
Bidaiaren bat?
Bai, munduaren itzulia egingo dugu laurogei egunean.
Ezin dugu une bat ere galdu. Maletarik ez. Gauerako poltsa bat baino ez. Gainerakoa bidean erosiko dugu.
Bizkor!
Hartu poltsa hau, eta ondo zaindu...
... barruan 20.000 libera daude billetetan.



Phileas Foggen irteerak zalaparta handia sortu zuen.
Lehendabizi, Reform-Club ohoragarrian...
Gero, egunkarietara zabaldu zen...
Irakurri The Times! Phileas Foggen apustu sinestezina!
Baita Londres eta Erresuma Batu osora ere.
Gizon hori erotuta dago!
Ez du lortuko.
Zergatik ez, baina? Hori baino harrigarriagorik ikusi dugu!
Fogg berehala hasi zen burtsan kotizatzen, lasterketako zaldien pare.
Berrogeita hamarrean hartuko dut!
Nik hirurogeita hamar!
Hirurogeita hamabost hemen atzean!
Hirurogeian salgai!
Laurogei!
Bitartean, Mediterraneoan....


Urriak 9. Suezko portua, Erresuma Batuko kontsularen bulegoan.
Orduan, kontsul jauna, itsasontzia laster helduko dela diozu?
Ez, Fix jauna. Port Said parean ikusi zuten atzo Mongolia.
Hartu pazientzia, beraz. Baina ez dakit nola ezagutuko duzun zure gizona, Mongolia ontzian baldin badago.
Halako jendea igarri egiten da ezagutu baino gehiago. Usaimena behar da. Detektibe batek diotsu.
Alabaina, jaso duzun deskribapenaren arabera, Ingalaterrako bankuko lapurrak gizon zintzoaren itxura osoa du...
Kontsul jauna, lapur handiek beti dute jende zintzoaren itxura!
Ordubete geroago...